

**IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA
ETXEITA, GETXOKO UDALEKO
IDAZKARI NAGUSIAK**

**IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA
ETXEITA, SECRETARIO GENERAL DEL
AYUNTAMIENTO DE GETXO**

ZIURTATZEN DUT: *Getxoko Udaltzaskak 2024ko uztailaren 26an egindako ezohiko bileran, besteak beste, honako hau erabaki duela:*

CERTIFICO: *Que el Pleno del Ayuntamiento de Getxo, en sesión extraordinaria celebrada el día 26 de julio de 2024, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:*

110.- GETXOKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENA, BEHIN-BEHINGORAKO ONESTEKO PROPOSAMENA.

110.- PROPUESTA DE APROBACIÓN, CON CARÁCTER PROVISIONAL, LA REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO.

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengo osoz honako erabaki – proposamen hau onartu da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio se decidió aprobar por mayoría absoluta la siguiente propuesta de acuerdo:

ERABAKI PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Erredakzio-taldeak egindako txostenarekin bat etorritz, Udaltzaskak 2022.09.30eko ezohiko bilkuran hartutako 142. erabakiaren aurka aurkeztutako alegazioak ebatzea. Erabaki horren bidez, hasiera batean, GETXOKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENA onartu zen.

PRIMERO.- Resolver, de conformidad con el informe emitido al efecto por el Equipo Redactor, las alegaciones formuladas frente al acuerdo nº 142, adoptado por el Ayuntamiento Pleno en sesión extraordinaria de 30.09.2022, por el que fue aprobada, con carácter inicial, la REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO.

BIGARRENA.- Onartzea, behin-behinean eta aurreko ataleko alegazioen ebatzpenetik eratorritako aldaketekin, sektore-eskumenak dituzten administrazioek emandako txostenen ondoriozko gaiak eta Erredakzio-taldeak proposatutako hobekuntza-ohar teknikoak, GETXOKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENA, "Hiritek, Hirigintza Teknikariak, S.L.P." eta "Estudios de Renovación y Desarrollos Urbanos, S.L." enpresek osatutako ABEEK idatzitako dokumentazioaren arabera, EKOS, Asesoría e

SEGUNDO.- Aprobar, con carácter provisional y con las modificaciones derivadas de la resolución de alegaciones del apartado anterior, las cuestiones resultado de los informes emitidos por las distintas Administraciones con competencias sectoriales y las consideraciones técnicas de mejora propuestas por el Equipo Redactor, la REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO, según documentación redactada por la U.T.E. formada por las empresas "Hiritek, Hirigintza Teknikariak, S.L.P." y "Estudios de Renovación

Investigación Ambiental (EECO S.L.) enpresak idatzitako **INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREKIN** batera, eta zerbitzu teknikoek behin betiko onarpen-dokumentuan sartzeko adierazitako akatsak zuzentzea eta konuan hartzea.

Berariaz adierazten da aurreko lerrokadan aipatutako aldaketak ez direla funtsezkotzat jotzen, hasieran proposatutako eredu orokorrari eragiten ez diotelako.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau, behin-behinean onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren **Berrikuspenaren** dokumentuarekin eta haren Ingurumen Azterketa Estrategikoarekin batera, eta izapidetutako espedientea bidaltzea:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari, txostena egin dezan.
- b) Ingurumen-organoari, ingurumen-adierazpen estrategikoa egin dezan.

LAUGARRENA.- Erabaki hau alegazio-egileei bidaltzea, alegazioen balorazio-txostenaren kopiarekin batera, eta jakinaraztea egintza hau izapide-egintza bat dela, ez behin betikoa, eta haren aurka ezin dela errekurtsorik jarri.

BOSGARRENA.- Erabaki hau eraginpeko administrazio sektorialeki helaraztea, behin-behinean onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren **Berrikuspenaren** dokumentuarekin eta haren Ingurumen Azterketa Estrategikoarekin batera.

SEIGARRENA.- Erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, lurralde historikoan gehien saltzen

y Desarrollos Urbanos, S.L.", junto con el ESTUDIO AMBIENTAL ESTRATÉGICO, redactado por EKOS, Asesoría e Investigación Medioambiental (EECO S.L.), debiendo tener en cuenta las consideraciones y correcciones de erratas apuntadas por los servicios técnicos para su incorporación en el documento de aprobación definitiva.

Se deja constancia expresa de que las modificaciones aludidas en el párrafo precedente se consideran no sustanciales, al no afectar al modelo general propuesto inicialmente.

TERCERO.- Remitir este acuerdo, junto con el documento de la Revisión del Plan General de Ordenación Urbana aprobado provisionalmente y su Estudio Ambiental Estratégico, así como el expediente tramitado:

- a) A la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco para la emisión de informe.
- b) Al órgano ambiental para la emisión de la Declaración Ambiental Estratégica.

CUARTO.- Remitir este acuerdo a las personas alegantes, junto con la copia del informe de valoración de sus respectivas alegaciones, haciéndoles saber que el presente acto es un acto de trámite, no definitivo, contra el que no cabe la interposición de recurso alguno.

QUINTO.- Dar traslado de este acuerdo a las Administraciones Sectoriales afectadas, junto con el documento de la Revisión del Plan General de Ordenación Urbana aprobado provisionalmente y su Estudio Ambiental Estratégico.

SEXTO.- Publicar este acuerdo en el Boletín



Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
<http://www.getxo.eus>

den egunkarietako batean eta Udalaren webgunean argitaratuko da

Oficial de Bizkaia, en al menos uno de los diarios de mayor circulación del territorio histórico y en la web municipal.

Eta horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izateko, Akta oraindik ez dela

Y para que conste y surta efectos, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha

O. Batz.2024.07.26/ Pl. 26.07.2024



Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
<http://www.getxo.eus>

*onartu ohartarazita, ziurtapen hau egin,
eta Alkateak ontzat eman ostean sinatu
du, Getxon.*

*sido aprobada, expido la presente
certificación, que visada por la Alcaldesa,
firmo en Getxo.*

O. Batz.2024.07.26/ Pl. 26.07.2024